



Expte. nº SUBV_EVAL_INDIV/2025/10

DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAU BIDEAN EMATEKO DEIALDIA, 2025ean UNEAN
UNEKO SENTSIBILIZAZIO JARDUKETAK GAUZATZE ALDERA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

Iruñeko Udalak, 2025erako aurrekontuan, 1.677.904 euroko hasierako zenbatekoa aurreikusi du Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, herrialde pobreenetako komunitate behartsuenei laguntze aldera.

Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak honako jardute-ildo hauek ditu oinarri:

- Sentsibilizazio-jarduerak finantzatzea beste batzuekin batera, betiere Hegoaldeko herrialdeen egoera, egoera horren zio eragileak eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak ardatz hartuta.
- Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeek (GGKE) garapenaren alde eginiko proiektuak finantzatzea beste batzuekin batera, bi helbururekin, hots, Hegoaldearen garapenaren alde aritzea eta Udal-barrutiko elkarte solidarioen sarea sendotzea.
- Larrialdietako jarduketa humanitarioetan laguntzea.
- Udalaren zuzeneko inplikazioa Hegoaldeko toki-erakundeekin, lankidetzak proiektuetan.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) sortu duen Lankidetzako Tokiko Funtsean parte hartzea.
- Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan eta gure hirian lanean ari diren GGKEekin jardutea, parte hartuz eta informazioa emanez.

Iruñeko Udalaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetzak) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat, unean uneko sentsibilizazio jarduketak egiteko dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdirako. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna gisa ikusten da.

A. ENTITATE DEITZALEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorra



BANAKAKO EBALUAZIOA

4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.
-------------------------------	--

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da beste hainbatekin batera finantzatzea GGKE interesdunek eta Herriarren Erakundeek Udal Erroldan izena emanda dauden irabazi-asmorik gabeko entitateek 2025ean Iruñean egin beharreko Unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak (USJ) –biztanle orori zein talde jakin batzuei zuzenduak–.

2. Deialdiaren helburua:

Hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerarekin, egoera horietara bultzatu dituzten zergatiekin eta komunitate horiek arazook gainditzeko egiten ari diren ahaleginekin zerikusia duten alderdien gaineko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak egitea sustatzea, halako moduz non Iruñeko herritarren artean engaiamendu solidarioko jarrerak bultzatuko baitira, harreman bidezkoagoen eta berdintzaileagoen alde.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

- a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea.
- b) 2025ean egitea (hasi nahiz bukatu). Gehienez ere hiru hilabeteko epean abiarazi beharko dira dirulaguntza ordaintzen denetik hasita.
- c) Jarduerak izaera irekia eta publikoa izan beharko dute, eta Iruñean eginen dira.
- d) Behar bezain zabal garatuta aurkeztea emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa.
- e) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzear arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.
- f) Erakunde eskatzaileak ezaguera zabala erakutsi behar du proiektuaren eta hura gauzatzeko moduaren gainean, bai eta proiektua behar bezala gauzatzeko behar diren material mota eta pertsona kopuruaren gainean ere.
- g) Erakunde bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izanen du deialdi honetan.

Deialdi honen xedetik kanpo geratuko dira:

- 1.- Garapenaren aldeko lankidetzako edo Larrialdi Humanitarioko beste proiektu batzuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak, edo entitatea bera finantzatzekoak.
- 2.- Entitate eskatzailearen barne-funtzionamenduak sortutako jarduerak: barne prestakuntzako jarduerak, buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpena, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar.
- 3.- Ikastetxeetan eskola-ordutegian egindako jarduerak.



BANAKAKO EBALUAZIOA

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Deialdi honetako eskaerak baloratzeko honako irizpide hauek erabiliko dira: 100 puntu gehienez ere.

A. Proiektuaren planteamendu teknikoa.....	55
A.1. Proiektuaren eta deialdiaren xedearen arteko egokitasun-maila.....	10
A.2. Proposatutako ekintzaren ingurunearekiko txertatze-maila.....	10
A.3. Eginen diren jarduketei buruz emandako informazioaren zehaztapen-maila.....	10
A.4. Koherentzia-maila honako hauen artean: ekintzaren justifikazioa, helburuak, proposatutako jarduerak eta aurreikusitako aurrekontua.....	10
A.5. Erabili beharreko baliabideen eta egin beharreko jardueren egokitasuna.....	10
A.6. Proposatutako ekintza gauzatzeko benetako bideragarritasuna	5
B. Iruñean lanean ari diren GGKEek bultzatutako proiektuekin lotutako komunitateen egoeraren inguruan sentsibilizatzen duten ekintzak	10



BANAKAKO EBALUAZIOA

C. Honako helburu hauei buruzko gogoeta dakarten ekintzak: 1) Hegoaldeko herrialdeetako urritasun-egoera; 2) egoera hori eragiten duten zergatiak, eta 3) komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak.....	15
C.1. Helburuetako bat kontuan hartzen badute.....	5
C.2. Helburuetako bi kontuan hartzen badituzte.....	10
C.3. Hiru helburuak kontuan hartzen badituzte.....	15
D. Ekintzaren xede den populazioaren parte-hartze aktiboa eragiten duten proiektuak, harremanak bultzatuz Hegoko taldeekin eta erakundeekin.....	10
D.1. Sentsibilizazio-ekintzaren xede den populazioaren parte-hartze aktiboa	5
D.2. Hegoko taldeekin eta erakundeekin harremanak sortzea.....	5
E. Kontuan hartu beharreko beste irizpide batzuk.....	10
E.1. Ekintzaren eragina: zenbat pertsona sentsibilizatzea aurreikusten den, modu zuzenean zein zeharka	2
E.2. Hegoaldeko pertsonen eta eragileen parte-hartzea proiektuan.....	3
E.3. Genero-ikuspegiaren txertatzea jarduerak gauzatzerakoan.....	2
E.4. Jardueran tokiko boluntarioak engaiaturik egotea.....	3

Proiektuek, dirulaguntza jasotzeko, gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENENKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 10.000 €					
Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.					
2. Aurrekontu-partida: 90/23930/482090					
3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere 2.000 € emanen dira. Dirulaguntza jasotzeko, jarduketa puntualak gutxienez 60 puntu lortu beharko ditu. Puntuazio hori gaindituz gero, dirulaguntza eskatutako kopuruaren % 100 izanen da, deialdian onartzen den gehieneko kopurua gainditzen ez badu eta horretarako kreditu eskuragarririk bada. Puntuazioa zehazteko, deialdi honetako B.4) apartatuko oharrek aintzat hartuko dira.					
4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastu-baimena eta -konpromisoa aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako esleitutako kredituaren mende egonen dira.					
5. Urtekoak:					
Urteko arrunta:	10.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:	
Onuradun izaten ahal dira dirulaguntza ematea dakarren egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta ondoren aipatzen diren inguruabarretan badaude eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok eragiten ez badie, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.	
Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ	
a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea:	



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren (AECID) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan izena emanda izatea eskaera aurkezten duen egunean; halaber, dokumentazioa eguneratuta izan beharko dute

edo

- Herritarren Entitateen Udal Erroldan izena emanda izatea eta lehen edo bigarren mailako jarduketaren eremua garapenaren aldeko lankidetzaren izatea.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Egoitza edo ordezkari iraukorra Iruñean edukitzea. Nolanahi ere, dirulaguntza honen onuradunak izaten ahal dira baldintza hau bete ez baina Iruñeko udalerriarentzat eta bertako herritarrentzat onuragarri diren proiektuak aurkezten dituzten entitateak.

d) Behar bezain zabal ematea proiektuak gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.

e) Halako egitura edukitzea ezen nahikoa izanzen baita hala helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

f) Deialdi honetan edo Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren besteren batean aurretik dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki deialditik kanpo geratuko dira.

h) Egiaztatzea 2024an garapenaren aldeko Lankidetzan Iruñean egindako jarduerak.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4 apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea proiektuak garatzen den bitartean GGKE edo irabazi-asmorik gabeko entitate eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketaren berri: estatutu-aldaketak, entitatearen legezko ordezkariaren aldatzea, etab.

b) Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.

c) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanzen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaketa; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuak banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egon diren, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu–.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da

BANAKAKO EBALUAZIOA

d) Jarduerak adingabeekin lan egitea badakar, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoak jasotzen dituen betebeharrak bete beharko dira.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio edo publizitate idatzi eta grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzeko beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: BAI ☒ EZ ☐
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI ☒ EZ ☐

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidearen bidez, honako web-helbide honetan:
www.pamplona.es/eu

Aurkezpen telematikoak barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako eranskinak.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 26an amaituko da.

Deialdi hau argitaratu baino lehenago egindako jardueren kasuan (urtarrilaren 1etik oinarri hauen argitalpenera bitarte), eskaerak aurkezteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izanen da, behin oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.



Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldezturik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordezturik erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriak dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunak agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

- Entitatearen estatutuak.

- Egiaztalaria, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan edo Herritarren Entitateen Udal Erroldan izena emana duela ziurtatzeko, betiere dokumentazioa egunean edukita eskaerak aurkezteko mugaegunean.

- Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.

- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren aipamena eta akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa).

- Kontratututako edo entitatearen egoitzan edo ordezkartzan lanean ari diren boluntarioen zerrenda.

- Iruñean 2024an garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan egindako jardueren egiaztalaria.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren artetan.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izan–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. Eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena. Memoria hori V. Eranskineko inprimakiarekin bat aurkeztu beharko da. Memoriak gain, laburpen-orri bat aurkeztu beharko da, formatu digitalean, honako alderdi hauek jasota: aukeratutako gaiak, proiektuaren testuinguru orokorra, proiektuaren hasiera- eta amaiera-data, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jardueren deskribapena, zein talderi eta eragile parte-hartzaileri dagoen zuzenduta, jarduerak non egingen diren, eta aipamen labur bat entitate eskatzaileak garapenaren aldeko sentsibilizazio eta hezkuntzako esparruetan izan duen ibilbidea eta eskarmentua azalduta. Proiektuari eranstean zaizkion eranskin tekniko guztiek titulua izanen dute eta zenbakiak izanen dira, eta proiektuari buruzko informazio gehigarria eman beharko dute, ez entitateari buruzkoa.

g) Aurrekontu banakatua, jarduketa garatzeko gastuekin eta diru-sarrerekin, bai eta entitateak paratzen dituen baliabideak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatu edota horiek emandako dirulaguntzak ere aipatuta.

h) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera –banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada aurkeztu beharko da–, betiere datak eguneratua eta eskaerak aurkezteko epemugatik hurbilekoa behar duelarik. Eredua erantsi da (IV. eranskina).

j) Sexu-delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria adin txikikoekin aurreikusitako jardueretan ohiko harremana izanen duten kontratatutako langile, boluntario, praktiketako langile edo edozein pertsonarendako.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.

JAKINARAZPENA:

EBAZPENAREN

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4 apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



BANAKAKO EBALUAZIOA

Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedienteak kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.
Instrukzio organoak aurre-ebaluazio bat egingen du, eta hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non eskura daukan informazioaren arabera eskatzaileek bete beharreko betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatuko baita.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 3 hilabete.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenean berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzen zenbatekoak, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☒ Permititzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharraz: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu)

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

Jardueren programari zuzenean lotutako gastuak:

- Hitzaldiak (hizlarien egonaldiak, bidaiak eta dietak), gehienez ere % 80. Muga hori gainditzen ahalko da beste herrialde batzuetatik etortzeko bidaiak direnean.
- Alokairuak: entitatearen ohiko egoitzaz besteko guneak alokatzea, jarduketak egiteko beharrezkoak (ahal izanez gero, publikoak).
- Egitea, diseinatzea eta inprimatzea.
- Erantzukizun zibileko aseguruak.
- Jarduera hedatzeko gastuak.
- Garraioa eta materialen aseguruak (erakusketarik eginez gero).

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



BANAKAKO EBALUAZIOA

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen 2.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagundu ahalko:

- Proiektuak berekin ekar ditzakeen administrazio- eta kudeaketa-gastuak. Gastu horiek entitate onuradunak finantzatzeko ditu bere ekarpenen edo beste bide batzuetatik jasotako ekarpenen bidez.
- Entitate eskatzailearen barne funtzionamenduak sortutako jarduerak (barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar).
- Garapenaren aldeko edo larrialdi humanitarioko proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: Jarduerak 2025ean egingen dira. Gehienez ere hiru hilabeteko epean hasiko dira, dirulaguntza entitate eskatzaileari ordaindu zaion egunetik hasita.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 50

Entitate onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da, hirugarrenekin ituna egiten badu, dirulaguntzaren xede den jarduerak osorik edo zati batean gauza ditzaten. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatu beharko da: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Kasu bakoitzean egin beharreko ekintzak zenbat jo eta horren % 10.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honetan dirulaguntza jasotzea bateraezina izanen da Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren esparruan ematen dituen beste dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera bererako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaleari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



N. ORDAINKETA:

1. Nola ordainduko diren: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren % 100 aldez aurretik ordainduko da, ordainketa bakar batean.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzeara:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

1. Diruz lagundutako entitateek gauzatutako proiektuari buruzko amaierako txosten deskriptiboa eta finantzarioa aurkeztu beharko dute telematikoki.

2. Txostenean, honako agiri hauek jaso beharko dira:

a) Dirulaguntzen xedea den jardueraren memoria, non banakaturik zerrendatuko baitira dirulaguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua, VI. eranskinarekin bat.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez (VI. eranskina).

c) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, are nominak ere, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

- Justifikazio-agiriekin jatorrizkoak izan beharko dute.

- Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkitako dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jaulkitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaintzeko era.

Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak eta/edo kutzako tiketak.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



PFEZaren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.

- d) Faktura edo gastu-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).
- e) Hartzailearen egiaztageria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.
- f) Diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa– (kartelak, liburuxkak, argazkiak, txostenak, katalogoak, argitalpenak, etab.).

g) Telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IX. eranskinarekin bat.

3. Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) klausulan aurreikusitako onuradunen betebeharrak galarazi gabe.

4. Diruz lagundutako proiektuei edozein unetan egiten ahalko zaie kontrola eta jarraipena, eta haiek gauzatzeko ardura duten GGKEek Iruñeko Udalak eskatzen dien edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dute.

5. Diruz lagundutako erakundeek justifikazio-txostena aurkeztu eta gero, Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Programak Deialdiaren jarraipen txosten bat egingen du. Txosten horretan, egindako jarduketak eta diruz lagundutako proiektu bakoitzaren justifikazio ekonomikoa jaso eta baloratuko dira. Txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, onetsi dezan.

- ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena
aurkeztuta. Bestelako ☐ aurkeztuta: ☐ BAI ☐ EZ
- ☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-epea hilabete batekoa izanen da, proiektua amaitu eta hortik aitzina.

Deialdi hau argitaratu baino lehenago bukatutako proiektuen kasuan, justifikazioa dirulaguntza jaso eta hilabetera aurkeztu beharko da.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



BANAKAKO EBALUAZIOA

Justifikazioa ez bada adierazitako epeetan aurkezten, dirulaguntza itzuli beharko da. Horretarako, itzulketaren prozedura bideratuko da.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI EZ

1. 2.2) apartatuan adierazitako epean dokumentazioa ez aurkeztea, aurretik Udalak eskatuta.
2. Edozein zio dela medio diruz lagundutako gastuak egiten ez badira, edo horietan aldaketak egiten badira Iruñeko Udalak bere organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe, egin gabeko gastutzat hartuko dira.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekursoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK:

Eskabide telematikoa egin aurretik GNLUPekin harremanetan jartzea gomendatzen da, funts erabilgarriak dagoen jakiteko.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



BANAKAKO EBALUAZIOA

V. ERANSKINA. UNEAN UNEKO SENTSIBILIZAZIO-JARDUKETAK AURKEZTEKO FORMULARIOA VI.

ERANSKINA. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK JUSTIFIKATZEKO FORMULARIOA

VII. ERANSKINA. AGIRIAK KONTSULTATZEKO BAIMENA.

VIII. ERANSKINA. ADIN TXIKIKOEKIN OHIKO HARREMANA DUTEN PERTSONEI BURUZKO
BETEBEHARREN ADIERAZPENA

IX. ERANSKINA. AURKEZTUTAKO AGIRIEN EGIAZKOTASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENA.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

BANAKAKO EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da